Aranguren Ibarreko
GAZTEDIAri
buruzko buletina

Urtarrila - Martxoa 2023

Ayuntamiento del Valle de ARANGUREN Ibarreko Udala

ARANETXEA

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

Instituto Navarro de la Juventud Nafarroako Gazteriaren Institutua

Adrián Górriz

INAUTERIAK

OTSAILAREN 17AN

Inauterietako personaien bisita Ikastetxeetan, herribazkaria, kalejira Zaramaluzeren bila...

ZURE ZAIN GAUDE!

Informazio gahiago nahi baduzu edo Mutiloako inauterietan parte-hartu, harri harremanetan **carnavalesdemutilva@gmail.com** edo joan **urtarrilaren 18ko** informazio-bilerara, **19:30ean**, Aranetxean.

Adrián Górriz

PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK

ESKOLA-LAGUNTZA

Eskolako lanak egiteko errefortzu-programa bat da, eta jolasjarduerak ere egiten dira, hala nola jolasak edo tailerrak.

Astalehen, astearte eta ostegunetan
- 17:00etatik 19:00etara -

ANTZERKIA

Landu eta garatu jolas dramatikoaren bidez sormena, oroimena, autonomia, gizarte eta adierazpen trebeziak, beldur eszenikoa, jendaurrean hitz egitea, komunikatzeko teknikak, etab.

Asteazkenetan
- 17:30etatik 19:00etara -



ANIMARANETXEA

Gazteen autonomia pertsonala eta taldekakoa garatzen duen programa da, taldedinamiken, baliabide komunitarioen, kulturalen eta assialdiko baliabiden bidez.

Larunbatetan - 11:30etatik 13:30etara

ARAR
ARANGURENGO ARTISTAK

Aranguren Ibarreko Udaleko Gaztediaren Alorrak herriko gazteen sormen garapena eta adierazpen artistikoa bultzatzeko helburuarekin jarraitzen du. Horregatik sortu da deialdi hau, arte urbanoa, graffitia edo horma-irudi artistikoa izeneko adierazpen sortzaileak sustatzeko.

Zure talentua ezagutarazi nahi baduzu, ez izan zalantzarik eta jar zaitez gurekin harremanetan::

aranetxea@aranguren.es edo **juventud@aranguren.es** / **948 23 75 58** edo **689 80 87 32**.

AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKOA

Psikologiarekin lotutako gaiei buruzko laguntzazerbitzua da, bakoitzaren naurriko arreta pertsonalizatu eta zuzenaren bidez.

Argibideak nahi badituzu edo hitzordu bat eskatu, jo guregana:

aranetxea@aranguren.es edo
juventud@aranetxea.es
948 23 75 58 edo **689 80 87 32**



3D MAKINA

Ikasi nahi al duzu irudiak 3Dn egiten?

Emanuzu izena gure taldean

IRAKURKETA KLUBA

2010ean, 2009an eta 2008an jaiotako pertsonendako irakurketa-taldea da, liburuak, esperientziak eta pentsamenduak partekatzeko

ENGLISH TALK

Aukera ederra da zure ingelesa hobetzeko, lagunekin hizketan goxo, presiorik gabe eta azterketarik gabe!!

Do you want to have fun and learn english? Join us!

TAILERRAK ETA IKASTAROAK

LASERTAG

Hasi nahi al duzu urtea zure koadrilarekin beste modu batez gozatzen?

- **Eguna:** urtarrilak 4
- **Ordutegia:** 17:00etatik 20:00etara
- **Adina:** 12 - 30 urte
- **Lekua:** Kultur Etxeko auditorioa
- **Emailea:** Aliados Pro
- **Izen-ematea:** abenduaren 19tik 28ra
- **Prezioa:** 5€ pertsonako
- **Ordainketa:** abenduaren 29tik urtarrilen 3ra

AUTOESTIMUA ETA SARE SOZIALAK

Zatoz eta hautsi gizarteak emakumeei inposatzen dizkien edertasun kanonak, sekulako eragina baitute osasun fisikoan eta mentalean.

- **Egunak:** urtarrilak 23, 24 eta 26
- **Ordutegia:** 19:00etatik 21:00etara
- **Adina:** 18tik 25 urtera bitarteko emakumeak
- **Lekua:** Aranetxea
- **Emailea:** REset
- **Izen-ematea:** urtarrilaren 9tik 14ra
- **Prezioa:** doan

feliz zoriontsu
VALLE DE ARANGUREN IBARRA

TAILERRAK ETA IKASTAROAK

TXANGOA: SNOW ESKI ALPINOA

Egun gozagarria pasatu nahi baduzu elurretan eta kirola egiten, ez izan zalantzarik eta emazu izena.

- **Eguna:** urtarrilak 28
- **Ordutegia:** 07:30etatik 20:00etara
- **Adina:** 16tik 30 urtera arte
- **Lekua:** Candanchú
- **Izen-ematea:** urtarrilaren 16tik 21era
- **Prezioa:** 32€ erroldatuak / 50€ ez erroldatuak
- **Ordainketa:** urtarrilaren 23tik 27ra

AUTODEFENTSA FEMINISTA

Tailer honetan, ahaldunduko zara eta esperientziak eta bizipenak partekatuko dituzu, begirada M8-n pausatuta.

- **Egunak:** otsailak 27 eta 28
- **Ordutegia:** 19:00etatik 21:00etara
- **Adina:** 16tik 30 urtera bitarteko emakumeak
- **Lekua:** Aranetxea
- **Emailea:** Endara
- **Izen-ematua:** otsailaren 15tik 22ra
- **Prezioa:** doan

TAILERRAK ETA IKASTAROAK

DJ TAILERRA

Gozatu soinu nahasketak egiten eta zeure saioak sortzen.

- **Egunak:** martxoko asteazkenetan
- **Ordutegia:** 19:00etatik 21:00etara
- **Adina:** 12tik 20 urtera arte
- **Lekua:** Aranetxea
- **Emaileak:** Imanol Reyes eta Álvaro Arellano
- **Izen-ematea:** otsailaren 20tik 25ra
- **Prezioa:** doan

MARTXO OSASUNGARRIA

Martxoko larunbatetan, zatoz Aranetxera askari goxo eta osasungarria hartzera, eta ongi pasatzera.

- **Egunak:** martxoko larunbatetan
- **Ordutegia:** 17:00etatik 19:00etara
- **Adinak:** 12tik 30 urtera arte
- **Lekua:** Aranetxea
- **Emailea:** Aranetxeko hezkuntza taldea
- **Izen-ematea:** aste bakoitzeko asteazkenara arte
- **Prezioa:** doan

AISIALDIKO BEGIRALEAK

TITULAZIO OFIZIALA,
Nafarroako Gobernuak
- Nafarroako Gazteria Institutuak
emana

urtxintxa navarra
ESCUELA DE FORMACIÓN DE TIEMPO LIBRE
AISIALDIKO HEZITZAILEEN ESKOLA

Emailea: “Urtxintxa” Aisialdi Eskola

LEKU MUGATUAK

(+ 18 urte)

410 €*

Argibideak ARANETXEAn edo
aranetxea@aranguren.es
edo juventud@aranguren.es
948 23 75 58 edo 689 80 87 32.

* Nafarroako Gazteria Institutuak Matrikularen kostuaren %50era ematen du, behin zati teorikoa bukatutakoan (gehienez, 175€).
* Aranguren Ibarreko Udalak 100€-ko laguntza ematen die bere gazte erroldatuei, behin ikastaroa bukatu ondoren.

GAZTEENTZAKO GUNE BERRIA

"31192", "artepea", "la sala"... Gazteentzako gune berrirako proposatu dituzuen izenetako batzuk dira.

Zure proposamen guztiak entzun nahi ditugu: izena, espazioak zer izan behar duen, dekorazioa, joko berriak, dj mahaiak, askaldegiak... Zer gehiago bururatzen zaizu?.

ZATOZ ARANETXERA ETA EMAN ZURE IDEIAK!

ELKARTEAK

GAZTEARAN

Gaztearan Gazte Elkartean **boluntario** izan nahi baduzu, jo haiengana **ajgaztearan@gmail.com** e-mailaren bidez edo sare socialen bitartez.

Aurten, **"31192"** -k arropa eta merchandising bilduma berria dakar. Info guztia haren sareetan.

@gaztearan

ARANGUREN TELEBISTA

Tokiko telebista-kanala kudeatzen duen kultura-elkartetik, parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, zuk erabakitzen duzun eta zure beharretara hobekien egokitzen den moduan. Kameren aurrean nahiz atzean parte har dezakezu. Programa bat grabatzen edo aurkezten ikasi nahi baduzu, jarduera bat eman nahi baduzu edo, aitzitik, gidoi bat egin, zure ideiak adierazi, grabatzen edo soinua ateratzen ikasi... Hemen duzu aukera.

Helbide elektronikoaren edo web-guneare bidez jar zaitezke harremanetan:
participa@aranguren.tv

@arangurentv

Aranguren Televisión - Aranguren Telebista

INFORMAZIOA

Tailer, ikastaro eta jardueretarako plazak **mugatuak** dira. Jarduera jakin bat garatzeko gutxieneko inskripzio batzuk egin beharko dira, eta gutxieneko hori lortzen ez bada, jarduera eten egingo da.

Aranguren Ibarrean erroldatutako gazteei emango zaie lehentasuna, eta zozketaz esleituko da izena eman dutenen artean. Zozketaren ondoren, onartutako pertsonei jakinaraziko zaie izena emateko fitxa bete beharko dutela, eta, behar izanez gero, ordainketa erantsiko zaie.

Sarrera **ES2330080208001464731825** kontu-zenbakian egingo da. Kontzeptuan, izena eta jarduera jarri beharko dira.

Edozein aldaketa gertatzen bada, gure web orrian: **aranetxea.org/eu/** eta gure sare sozialetan edo: **www.aranguren.es/eu/zerbitzuak/gazteria/** helbidean argitaratuko da.

ARANETXEA

K/ Nagusia 2bis (31192)
Mutiloa, Nafarroa
948 23 75 58 · 689 80 87 32
aranetxea@aranguren.es
aranetxea.casadejuventud
@aranetxea
@aranetxeamutilva

WEB ORRIALDEA

Aranetxea

Ayuntamiento